

NAZIOARTEKO ASTEA

INTERNATIONAL WEEK

SEMANA INTERNACIONAL

Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko
Errektoreordetza

Mugikortasuna: kontuan izan beharreko informazioa

- Oso garrantzitsua
- Baldintzak
- Hizkuntza baldintzak
- Mugak
- Irakasgaien aintzatespena
- Alderdi ekonomikoa
- Errektoreordetzaren aholku orokorrak



OSO GARRANTZITSUA


- **INFORMA ZAITEZ** nazioarteko edozein mugikortasun programetan parte hartzeko eskaera egin aurretik.
- Kotsultatzeko bi iturri nagusi:
 - Zure ikastegiko Nazioarteko Harremanetarako koordinatzailea (galdetu nor den Idazkaritzan).
 - Nazioarteko Harremanen Bulegoaren web orrialdea:

<http://www.ehu.es/eu/web/nazioarteko-harremanak>



OSO GARRANTZITSUA

- **IRAKURRI ARRETA HANDIZ** aukeratu duzun programari buruzko informazioa.
- Arreta berezia eskaini plaza bat lortzeko bete behar dituzun **baldintzei**.
- Eskaera egin aurretik, **EGIAZTATU** interesatzen zaizkizun harrerako unibertsitateetan **zure titulazioko ikasketak ematen dituztela** (ez da beti hala izaten). Kontsultatu zure egutegi akademikoa eta eskainitako plazen iraupena (lauhileko bat edo ikasturte osoa).
- Eskaera egin aurretik, **ARRETA BEREZIA** eskaini hizkuntza baldintzei.
- Egiaztatu ea bekarik badagokizun.



NIE

- UPV/EHUn matrikulatutako ikasle atzerritarrek NIE bat DERRIGORREZ izan behar dute.
- Datu hau Mobility Tool delakoan sartu behar izango dugu.
- Ez duenari ez diogu bekarik ordainduko.

BALDINTZAK

- **BALDINTZA OROKORRAK:** Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetza (UPV/EHUko ikasle GUZTIEI aplika dakieke)
- **BALDINTZA ESPEZIFIKOAK:** Ikastegia (murriztaileagoak izan daitezke; INOIZ EZ permisiboagoak)




BALDINTZAK

- Eskaera egiteko unean 2. mailan matrikulatuta egotea.
- **UPV/EHU**n nahitaez **kreditu kopuru hauek** matrikulatuta edukitzea, egonaldiaren arabera:
 - a.- 3 hileko egonaldietarako, gutxienez **15 kreditu**.
 - b.- 5 hileko egonaldietarako, gutxienez **30 kreditu**.
 - c.- ikasturte osoko egonaldietarako, gutxienez **60 kreditu**.




HIZKUNTZA BALDINTZAK

- Eskaera egin aurretik **KONTUAN IZAN** hizkuntza baldintzak. Kasu askotan, **erabakigarriak** izaten dira hautaketa egiterakoan.
- **Ikastegi bakoitzak** hautaketa egiteko bere baldintzak ezar ditzake.
- **Helmugako unibertsitate bakoitzak** ikasleak aukeratzeko bere arauak ezartzen ditu. **Garrantzitsua da arau horiek ezagutzea helmuga jakin bat eskatu aurretik.**
- Hizkuntza ezagutzea ez da formalitate hutsa; helmugako herrialdean integratzen lagunduko dizu.
- Gainera, gogoratu MECDren beka bat eskatzeko irakasgai gehienak egiteko erabiliko duzun hizkuntzako B2 ziurtagiria aurkeztu beharko duzula.



MUGAK

- 
- UPV/EHUK **4** mugikortasun programa kudeatzen ditu.
 - **Gehienez 2 mugikortasun titulazio osoan.**
 - **Ziklo bakoitzean, gehienez 12 hilabete Erasmus mugikortasun programetan (Erasmus praktikak barne): ikasturte bakoitzean 5 hilabete finantzatuta.**
 - Helmugako unibertsitateko egonaldiaren **gehienezko iraupena ikasturte batekoa da.**
 - 2 mugikortasun egin daitezke Latinoamerika eta Beste Norakoak programetan, **baina** titulazio desberdinetan.
 - **Hautaketan lehentasuna izango dute mugikortasun programa batean ere parte hartu ez dutenek.**

MUGAK

- Ikasturte bakoitzeko mugikortasun bat ("Erasmus ikasketak + Erasmus praktikak" egin daiteke).
- Mugikortasunaren gehienezko iraupena: 1 ikasturte.



BIGARREN BUELTA

- GARRANTZITSUA: lehenengo esleipenean emandako plaza onartzea
- Gero, bigarren bueltan, gure tzat lehentasun gehiago duen aukera bat esleitu ahal da.
- Bigarren buelta ondoren bion artean aukeratu behar da eta aldatu badaugu berriro berria onartu.

BETEBEHARRAK

- Zuk arduratu beharko duzu helmugako unibertsitatean onartua izateko kudeaketaz.
- Unibertsitate bakoitzak onarpen eskaerak aurkezteko (batzuetan online) ezarrita dituen epeak ezagutu beharko dituzu, unibertsitate askok ez baitute epez kanpo bidalitako eskaerarik onartzen.
- Zuk arduratu beharko duzu helmugako unibertsitatean egiten duzun egonaldirako ostatuaren kudeaketaz.
- Mugikortasun plaza bat esleitzeak EZ du esan nahi helmugako unibertsitateak onartu zaituenik.

HITZARMEN AKADEMIKOA

- Aintzatespena **LEARNING AGREEMENT** hitzarmenaren arabera egiten da.
- Ikasleak + jatorriko erakundeak + helmugako erakundeak **adostu eta sinatu** behar dute.



HITZARMEN AKADEMIKO

- Alde batetik, unibertsitate horretan egingo diren irakasgaiak eta kredituak eta, bestetik, UPV/EHUko ikasketa planean dagozkien kredituak (blokeak) barne hartuko ditu.
- Dokumentu horrek ezin izango ditu inola ere UPV/EHUUn dagoeneko "*gaindituta*" edo "*gutxiegi*" kalifikazio jaso duten irakasgaiak barne hartu, eta irakasgai horiek ezin izango dira helmugako unibertsitatean eginiko beste batzuekin aintzatetsi.
- Beharrezkoa denean titulazioa lortzeko baino kreditu gehiago matrikulatu ahal izango dira, beti ikastegiko baimena izanda.
- "*Aurkezteke*" kalifikazioa duten irakasgaiak egin ahal izango dira (alegia, matrikulatuta bai baina azterketarik egin gabe dituzunak).

BESTE BETEBEHAR BATZUK

- Onartutako egonaldian, trukearen baitan matrikulatutako kredituen % 50 gainditzea gutxienez.
- Helmugako ikastegian ezarritako datan hasia; bertaratu ezean, mugikortasunari uko egin diozula ulertuko da.
- Egonaldiaren datak edo mugikortasuna egiteko lauhilekoa aldatu nahi bada, eta aldaketa horrek eskainitako iraupena aldatzea badakar, NHBren eta ikastegiko koordinatzailearen oniritzia beharko da, eskaera hori egiteko arrazoiak aurkeztu ondoren.



BESTE BETEBEHAR BATZUK

- Horretarako ezartzen diren epeen barnean, egindako egonaldia eta horren iraupena egiaztatzea, egonaldiaren hasierako eta amaierako ziurtagiriak aurkeztuta (*Certificate of Arrival* eta *Certificate of Attendance*, hurrenez hurren). Helmugako unibertsitateak ziurtagiri horiek behar bezala sinatu eta zigilatu beharko ditu.
 - Dokumentu horiek aurkezten ez badira, Errektoreordetzak laguntza finantzario gisa jasotako zenbateko osoa itzultzeko eskatuko du.
 - Era berean, egonaldiaren ziurtagiriak jasotako hileko ordainketei dagozkien hilabete kopurua baino gutxiago egin direla adierazten badu, ziurtatu gabeko hilabetei dagokien dirua itzuli beharko da.



BESTE BETEBEHAR BATZUK

- Erasmus+ herrialde kideak programaren kasuan emandako hiru inkesta bete behar izango dira.
- Beharrezkoa denean, herrialdean sartzeko eta/edo egonaldi bat egiteko bisa lortzea, eta, helmugako unibertsitatean sartu ondoren, herrialde horretan jarraitu ahal izateko beharrezko beste edozein administrazio izapide egitea.
- NHBk ez du bere gain hartzen ikasleak izapide horiek ez egiteagatik mugikortasuna galtzearen erantzukizuna.



BESTE BETEBEHAR BATZUK

- Egonaldia luzatzeko: zure Erasmus koordinatzailearen baimena (jatorrikoa eta helmugakoa).
- Ikasketa kontratuan egindako aldaketak (*Learning Agreement-Hitzarmen Akademikoa*) eta aseguru mediko gehigarriaren baliozkotasuna areagotzeko dokumentuaren kopia.
- Luzapen hori ez da automatikoa izango, eta ez da inolako laguntza finantzariorik jasoko luzapenari dagozkion



ALDERDI EKONOMIKO.



- **Mugikortasuna = inbertsioa** (denbora, ahalegina eta dirua)
- **Bekek ez dituzte egonaldiaren gastu guztiak barne hartzen.**
- Beka batzuk mugikortasuna hasi eta aste, edo hilabete, batzuk **beranduago** jasotzen dira.
- **Helmugako bizi maila eta bidaiako gastuak:** norakoa hautatzeko faktore garrantzitsua da.
- Erasmus: nahitaezkoa da Europako Osasun Txartela eskuratzea, osasun estaldura izateko.
- Norako guztietarako, aseguru behar da (egiaztagiriaren kopia bidali behar da bulegora).

ERREKTOREORDETZAREN AHOLKU OROKORRAK

- Informatu **ondo** deialdiei buruz; ez sinistu esaten dizuten guztia. Jo iturrietara eta, behar izanez gero, galdetu.
- **Jarri harremanetan** zure ikastegiko mugikortasun koordinatzailearekin.
- **Egiaztatu** interesatzen zaizkizun norakoetan **zure titulazioko ikasketak ematen dituztela**.
- **Adi egon** mugikortasun eta beka eskaerak egiteko **epeei**.
- Mugikortasunak hainbat **betebehar** dakartza: prozesuaren erantzukizuna zure gain har ezazu.



ERREKTOREORDETZAREN AHOLKU OROKORRAK

- Zaindu zure **espediente**a: mugikortasun batean parte hartu ahal izateko bidea emango dizu.
- Hobetu **hizkuntzak**: beste hizkuntza batean ikastea zaila da.
- **Malgua izan**: bidaiatzeak milaka abentura eta atsekaberen bat edo beste ekartzen ditu.
- **GOZATU**: atzerrian ikastea pribilegio bat da, aprobetxa ezazu aukera hau!
- ikasle@ehu.es helbide elektronikoa erabili beharko duzu Errektoreordetzarekin harremanetan jartzeko. Desbidera ezazu.




IKASLEAK KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE ZENBAIT ALDERDI

- Ez duzue harrerako unibertsitatean tasarik ordaindu beharko, baina kasu batzuetan zenbateko txiki bat ordaindu behar izan daiteke, aseguru gastuak, ikasleen sindikatueterako afiliazioak edo hainbat materialen erabilera (fotokopiagailuak, laborategiko produktuak, etab.) ordaintzeko, tokiko ikasleei eskatzen zaien baldintza beretan.



IKASLEAK KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE ZENBAIT ALDERDI

- Ikasleak, programan parte hartzeko beharrezko baldintzaren bat ez betetzeagatik, zegokion mugikortasun programan parte hartu ezin badu, Unibertsitateak ez ditu bere gain hartuko ikasleak ordaindu dituen gastuak (hegazkin txartelak, ostatu erreserbak, etab.).
- Ikasleak zegokion mugikortasun programan parte hartu ezin badu, Unibertsitateak ez ditu bere gain hartuko dagoeneko ordaindu dituen gastuak (hegazkin txartelak, ostatu erreserbak, etab.).



IKASLEAK KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE ZENBAIT ALDERDI

- Inolako arrazoirik gabe betebeharrak ez betetzeak ondorio hauek izan ditzake: beka baliogabetzea, ikasketa kontratua bertan behera gelditzea, finantza hitzarmena deuseztatzea (ondorioz, ikasleak jaso dituen laguntza finantzario guztiak itzuli beharko ditu) eta etorkizunean Errektoreordetza honek sustatzen dituen mugikortasun programetako hautapen prozesuetatik kanpo gelditzea.
- Beka itzultzeko betebeharra erabat edo partzialki betetzen ez bada, ezin izango da beste matrikularik egin edo titulurik, notarik edo espediente akademikoari buruzko informazio oharrik jaso, beka guztia itzuli arte.
- Horrez gain, ikasleak ezin izango ditu UPV/EHUK eskaintzen dituen gainerako zerbitzuak erabili.

SUITZA



- Dakizun moduan, Europar Batasunak ez du baimentzen Suitzak Erasmus+ programan parte hartzea.
- Suitzako unibertsitate batzuek UPV/EHUrekin harremanetan jarraitu nahi dutela jakinarazi digute, eta beraiek finantzatuko dituztela gure ikasleen mugikortasunak. Dena den, mugikortasun horiek ez dira inola ere ERASMUS mugikortasun gisa hartuko; beraz, ez da Suitzako unibertsitateek emandako finantziaziotik kanpoko laguntzarik jasoko (SEPIE, MECD, Eusko Jaurlaritza, Kutxabank).

EGONALDIAREN LUZAPENA

Ikasleak Erasmus, Al edo Beste Norakoak egonaldia luzatzeko aukera izango du, beti ere ondoren aipatzen direnak kontuak hartuta:

- Ikasleak, egiten ari den Erasmus, Al edo BN egonaldia **bukatu baino lehenago** gauzatuko ditu luzapen hitzarmena eta horretarako egin beharreko tramiteak.
- Luzapena, Erasmus, Al edo BN egonaldia bukatu eta jarraian burutu beharko da. Ez da etenik onartuko (oporrak eta helburuko unibertsitateak itxita egon daitezkeen tarteak ez dira "eten" moduan kontsideratuko).
- Mugikortasunaren gehienezko iraupena 12 hilabetekoa izango da (luzapena barne) eta ikasleak ezin izango du mugikortasuna dagokion ikasturteko irailaren 30a baino beranduago amaitu.
- Egonaldia luzatu nahi duen ikasleak oniritzia eskatu beharko dio UPV/EHUko jatorrizko Ikastegiaren koordinatzaileari. Ikastegiari dagokio luzapena egiteko baldintzak eta epeak ezartzea.
- Ikasleak helburuko unibertsitateko koordinatzailearen oniritzia beharko du luzapena egiteko eta helburuko unibertsitatearen koordinatzaileak idatziz emango dio horren berri UPV/EHUko jatorrizko koordinatzaileari.
- Ikasleak egonaldia luzatuko duen denbora guztirako istripu/osasun babesa eskaintzen dion aseguruia kontratatuko du eta horren kopia bidaliko dio UPV/EHUko ikastegiaren koordinatzaileari. Ikasleak esandako aseguruia ez baldin badu eta zerbait gertatzen bazaio, Unibertsitateak ez du bere gain hartuko horren ondoriozko erantzukizunik.

EGONALDIAREN LUZAPENA

- Latinoamerika edo Beste Norakoak programetan dauden ikasleek luzapena egin nahi badute arreta berezia izan beharko dute harrera-herrialdean legezko egonaldia izateko behar dituzten agiri eta baimenak eguneratzeko orduan. Horretarako harremanetan jarriko dira hasierako baimena eman zieten agintariekin beharrezko prozedurak egikaritzeko harrera-herrialdean jarritako epeen barruan.
- Ikasleak hitzarmen akademikoa aldatu beharko du GAUR bidez eta koordinatzailearen oniritzia jaso beharko du, konbalidazioak bermatzeko eta eskatutako egonaldiaren luzapena benetakotzeko baliagarri izan dadin.

GARRANTZITSUA:

- Erasmus egonaldia luzatzen duen ikasleak onespén akademikoa bai, baina EZ du diru-laguntza osagarririk jasoko. Luzapenak iraun bitartean ikasitakoen onespén akademikoa lortzeko hitzarmen akademikoaren beharrezko moldaketa egiteko konpromisoa hartuko du eta horrez gain, lehen aipatu bezala, mediku-asegurua kontratatuko du. Eginbeharreko prozedura guztiak jatorrizko Ikastegiko koordinatzaileak emandako jarraibideen eta horren gidaritzapean burutuko dira.

Relaciones Internacionales - x

www.ehu.es/es/web/nazioarteko-harremanak

Aplicaciones Windows buscamultas.com, Bus... Manual MOODLE Azpiegitura Publikoak -... Dicionarios de Españ... GAUR Portal de la Biblioteca ... es-eu itultzaile autom... Otros marcadores

Euskara | Español | English Campus Araba | Campus Bizkaia | Campus Gipuzkoa INICIAR SESIÓN

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea NAZIOARTEKO BIKAINASUN CAMPUSA CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

Vicerrectorado de Estudios de Posgrado y Relaciones Internacionales

Perfiles • Estudios • Estructura • Investigación • Acceso a la universidad • Áreas temáticas • Servicios • Directorio

Abre en nueva ventana el sitio web Estructura

Busca en toda la Universidad Búsqueda avanzada

UPV/EHU > Relaciones Internacionales

RELACIONES INTERNACIONALES

- Quiénes Somos
 - » Presentación
 - » Ficha Institucional
- Alumnado UPV/EHU
 - » Erasmus
 - » Erasmus+ Master
 - » América Latina
 - » Otros Destinos
 - » SICUE
 - » Prácticas en el extranjero
 - » Ayudas Económicas
- Alumnado Visitante
 - » Programas de Intercambio
 - » Cursos de Idiomas



Alumnado



Profesorado



Programas de Movilidad:
Personal de Administración y
Servicios



Programa Buddy



Cursos de Lenguas para
Visitantes



Cambridge English Exams



www.ehu.es/estructura

- **MILA ESKER!!!!**
- **GALDERARIK????**

